

Kalitatezko ardi- eta ahuntz-esnea ekoizteko gakoak

Gaixo dauden animalien esneak elikadura intoxikazioak eragin ditzake. Horregatik, ezinbestekoa da gaizo dauden animaliak ez jeiztea eta beren esnea eraldatzera ez bidaltzea. Dena den, esne hau bidali baduzu, abisatu eraldatutako produktuak gainbegira ditzaten.

- Animaliak osasuntsu eta ondo elikatuta daudela
- Instalazioak egoera onean daudela
- Jezteko ekipoen garbiketa eta mantenua
- Higiene eta maneiu jardunbide egokiak
- Esnearen aldizkako analisiak eta jarduketak kontaketa altuak daudenean

Arazoak ekiditzeko, gomendagarria da esne-kalitate programei atxikitzea, gehienetan administrazio publikoak lagunduta.

- Lursailean albaitarien bisitak izatea
- Artaldea osasuntsu dagoela gainbegiratzea
- Gaixotasunak prebenitzeko planak
- Jezteko ekipoen berrikuspena
- Maneiatzeko errutinetarako aholkularitza
- Ustiapenaren Higiene Planak
- Analisisien jarraipena eta egiaztatpena
- Arazoan aurrean jarduteko jarraibideak

Aragoin albaitari laguntzailearen figura arautu dute

Joan den martxo amaieran, Gobernu Kontseiluak dekretu bat onartu zuen, Albaitaritzako Ikuskatzeen Laguntzaile Ofizialaren (AOIV) figura arautzeko.

[Argitaratutako arauaren azken zirriborroa](#)

Figura hori kontrolei eta beste jarduera ofizial batzuei buruzko [2017ko martxoaren 15eko 625/2017 Araudian](#) jasotzen da; dena den, [854/2004 Araudian](#) ere agertzen zen. Hau da figuraren definizioa: **“Agintaritza eskudunaren ordezkaria, 825/2017 Araudiko 18. artikuluan ezarritako betekizunen arabera prestakuntza duena. Zeregintzat du kontrol ofizialeko zenbait funtzio edo beste jarduera ofizial batzuei loturiko funtzioak betetzea”**.

Aragoiko arauaren helburua da albaitaritza-ikuskatzeetan laguntza teknikoa eskaintzeko elementu bat ezartzea, modu jasangarrian bermatu ahal izateko hiltegi-tako kontrol ofiziala behar bezala

gauzatzen dela.

Hauek dira AOIVren funtzioak eta betekizunak, zehazki:

1. **Ante mortem** ikuskatzeetan eta **animalien ongizateari** buruzko kontroletan, AOIVek zeregin praktikoetan bakarrik lagundu ahalko dute; besteak beste, anormaltasunak dituzten animaliak aurrez aukeratzen.
2. **Post mortem** ikuskatzeak gauzatu ahalko dituzte, Albaitaritza Zerbitzu Ofizialaren aldizkako kontrolpean.
3. **Kontu-ikuskatzeari** loturiko funtzioei dagokienez, higiene jardunbide egokiei eta kontrol kritikoko puntuak eta arriskuak aztertzekei buruzko informazioa jaso ahalko dute.

Horrez gain, Dekretu honen bidez, **Albaitaritzako Ikuskatzeen Laguntzaile Ofizialen Erakundeak** arautzen dira eta baimendutako **Erakundeen Erregistroa** sortzen da.

Osasun Publikoko Zuzendaritza Nagusi eskudunaren ardura izango da AOIVak gaitzea, baita AOIVen erakundeak baimentzea ere.

[Aplikagarria baldintza higienikoen malgutasuna okindegi eta barazki-sektoreetan](#)

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak eta Osasun Sailak EHAAn argitaratu berri dituzte Euskadiko bolumen txikiko ustiatzei egokitutako irizpide higieniko eta sanitarioak ofizialki ezartzen dituzten aginduak; zehazki, okindegi eta barazki ekoitzi eta merkaturatzen dituzten ustiatzei dagozkienak:

AGINDUA, 2019ko otsailaren 5koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena eta Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez [jatorri begetaleko produktuen sektoreko establezimenduetako baldintza higieniko eta sanitarioak egokitzeko arau tekniko espezifikoak](#) onartzen baitira.

AGINDUA, 2019ko otsailaren 5koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena eta Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira [okintza, pastelgintza eta iringintzako produktuen sektoreko establezimenduetako baldintza higieniko-sanitarioak egokitzeko arau tekniko espezifikoak](#).

Hemendik aurrera, ogi eta pastelgintza sektorean kantitate gutxi eraldatzen duten obradoreak beren

egoerara egokitutako betekizunak izango dituzte:

Zein produktu?

Ogi eta opil arruntak; Pastelgintza, konfiteria eta gozogintzako produktuak; Irinak (artoa, garia eta abarrak) eta Ogi arraspatua.

Zein bolumen?

- **Okintzako sektorean:** gehienez 1.250 kg irin astean.
- **Pastelgintzako sektorean:** lantegiko langileak 3 izango dira gehienez.

[Kontsultatu laburpen triptikoa -OGIA-](#)

Zein produktu?

Kontserba begetalak eta ozpinetakoak; Marmeladak eta menbrilloa ; Hozituak (germinatuak), Zukuak eta deribatuak; Jatorri begetaleko produktuak zuritu, zatitu, deshidratatu, hartzitu, lehortu eta/edo egostea eta Ortuari fresko higienizatuak (IV. Gamakoak).

Zein bolumen?

- **Barazkiak:** eraldatuaren 2.500 kg/urte baino txikiagoa.
- **Zukuak:** 5.000 litro/urte baino gutxiago.

[Kontsultatu laburpen triptikoa -Begetalak-](#)

Euskadiko sektore-agentetek, Foru-Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak eta Osasun Sailak elkarlanean osatu dituzte arauok, ELIKA Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioak koordinatuta eta aholkatuta.

Trichinelosia Europan 2017 urtean

- **Trikinelosia oso gaixotasun arraroa baina larria da Europar Batasunean (EB).**
- **2017an, 168 kasu egiaztatu ziren.**
- **Bulgarian, Kroazian eta Errumanian gertatu ziren baieztatutako kasuen % 73,8.**
- **Kontrolatu gabeko baldintzetan hazitako eta gutxi kozinatutako txerri-haragi eta ehizatutako basurde-haragia kontsumitzean harrapa daiteke gaixotasuna. Basurde-haragia da arriskutsuena gizakientzat.**

2017an, jakinarazpenen kopuruak % 50 egin du gora 2016ko kopuruarekin erkatuz gero. Hala ere, **igoera hori Bulgarian, Errumanian eta Kroazian jakinarazitako kasuen kopuruaren gorakadaren ondorio da**, aurreko urteetan oso kopuru gutxi jakinarazi baitzituzten.

Igoera hori gorabehera, 2012az geroztik joera beheranzkoa izan da.

Europako legediak (1375/2015 Legedia) eskatzen du **Trichinella** aztertzekeo **hildako txerri, basurde, basa-animalia, zaldi eta kontrolatu gabeko animalia-hazkuntzako beste kasu**

batzuetan. Ez da arau honetan sartzen autokontsumorako txerriak hiltzea, estatu kide bakoitzak arautzen baitu.

2017an, sei estatu kidek *Trichinella* kasuak jakinarazi dituzte, Bulgarian, Polonian, Kroazian, Errumanian eta Espainian taldekatutako txerri kutsatuetan.

Urtarrilean eta otsailean eman ohi dira kasu gehien, Gabonekin eta basurde-ehizaldiarekin bat etorritik.

Etxeko txerrietan egindako azterlanek adierazten dute alde aurreko kontaktua (zuzena edo zeharkakoa) egon dela nematodo horren gordailu diren basa-animaliekin.

Hedapen-ereduen arabera, ***T. spiralis* espeziea ez da hain ohikoa Europako iparraldean eta *T. britovi* espezieak kontzentrazio handiagoa izaten du Europako ekialdean.**

1375/2015 Legedia

Informazio interesgarria

ECDCk **beste gaixotasun batzuen zaintzari buruzko 2017ko urteko txostenak** ere argitaratu ditu 2019an, besteak beste:

- [Erresistentzia antimikrobianoa](#)
- [Rift haraneko sukarra](#)

[Beste txosten batzuk](#)

Salmonellaren kontrola oiloetan eta osasun publikoan duen eragina

Salmonelosiak da Europar Batasunean (EB) elikagaien bidez transmititzen diren gaixotasunetan bigarrena. Lehenengoa campilobakteriosia da. 2017an, estatu kideek gizakietan 91.662 salmonelosi-kasu jakinarazi zituzten.

Hainbat urtetan kopuruak behera egin bazuen ere, azken bost urteotan mantendu egin da salmonelosi kasuen kopurua. 2017an kopuruak zertxobait behera egin bazuen ere (94.425 kasuetatik 91.662 kasuetara), **2008an hasi zen beherazko joera geratu egin da.** Datu horiek eta beste batzuk txosten honetan azter daitezke:

Hain zuzen ere gelditze hori dela eta, EFSAK zientzia-iritzi bat argitaratu du. Horren arabera, abeletxeetan oilo erruleetan **Salmonellarako helburu zorrotzagoak jartzeak gizakien artean jatorri hori duten kasuak murrizten lagunduko luke.** Honako hauek dira helburu horietako batzuk:

- Gaur egun, EBko herrialdeek % 2ra murriztu behar dute zenbait *Salmonella*-motak

kutsatutako **oilo erruleen** kopurua. EFSAk uste du xede hori **% 1era murriztuz gero, gizakietan % 50era murriztuko lirakeela salmonelosen-kasuak.**

- **Oilo ugaltzaileei** dagokienez, gaur egun % 1eko xedea dago ezarrita giza osasunerako garrantzitsuak diren bost *Salmonella* motatarako (*Salmonella enteritidis*, *Salmonella typhimurium*, *Salmonella infantis*, *Salmonella virchow* eta *Salmonella hadar*). **EFSAk gomendatzen du xedea mantentzea hiru motatarako (*Salmonella enteritidis*, *Salmonella typhimurium* eta *Salmonella infantis*) eta beste biak (*Salmonella virchow* eta *Salmonella hadar*) ordezte**a gaur egun giza osasunerako garrantzitsuagoak diren beste mota batzuekin.
- Ostatu-sistemei dagokienez, ondorioztatzen da **Salmonellaren presentzia txikiagoa dela osatu-sistema alternatiboetan hazitako oiloetan kaiola-sistemetan hazten direnetan baino**. Hala ere, arrazoiak ezin dira erabat azaldu, ez baitago zientzia-ebidentziarik.

Trikina aurreko kontingentzia Planaren eguneratzea

Joan den 2018ko abenduaren 19an, AESANeko Batzorde Instituzionalak onetsi egin zuen **Trikinaren aurreko Kontingentzia Plan Nazionalaren aldaketa**. Planaren xedea da nazio mailako jarduera-plana ezartzea, animalietan edo haragian Trikina antzemanaz gero edo horietan Trikina egon daitekeela susmatuz gero.

[Trikinaren aurreko Kontingentzia Plan Nazionala](#)

Eguneratze honen berritasun nagusiak alderdi hauei buruzkoak dira:

Neurriak abeltzaintza-ustiategietan:

Basa-animalietan trikina antzematen denean, Animalien Osasunaren arloko agintari eskudunek egiaztatu egin beharko dituzte kutsa daitezkeen eta Trichinellarekin kontaktuan egon diren **animalien ustiategietako biosegurtasun-neurriak**.

Neurriak lursail zinegetikoetan:

50/2018 Errege Dekretua (ehizako azpiproduktuen kudeaketari buruzkoa) **ehiza larriaren beste modalitate batzuetan ere aplikatuko da**, baldin eta ehiza-barrutiko animaliek positiboa ematen badute.

Dekretua, gutxienez, kutsatutako animaliak antzeman eta handik aurrera geratzen den ehiza-denboraldian aplikatuko da; eta hurrengo denboraldian ere aplikatuko da, betiere lehenengo jarduera zinegetikoan animalia kutsatuak antzematen badira.

Komunikazioari buruzko neurriak:

Komunikaziorako eredu bateratua ezarri da, eta zehaztu egin da zein kasutan aplikatu beharko

den lankidetzarako eta informazioa trukatzeko prozedura, osasun publikorako larriak eta berehalakoak diren arriskuek eragindako elikagai-alertak kudeatzeko.

Aurreko plana onetsi eta 7 urtera **beharrezkoa zen** plana berrikustea eta eguneratzea, besteak beste, dagozkion **lege-aldaketak gehitu ahal izateko**.

Albaitaritzako antibiotikoen salmentak behera egin du European

Europako Medikamentuen Agentziak (EMA) argitaratutako txosten baten arabera, **albaitaritzan erabiltzeko mikrobioen aurkako medikamentuen salmenta orokorrak % 20 baino gehiago jaitsi dira European 2011tik 2016ra**.

Europar Batasunak (EB) emandako orientazioa eta animalietan antibiotikoak zuhurtziaz erabiltzeko kanpaina nazionalak eragin positiboa izaten ari dira. Horren erakusgarri da aipatutako txostena, 2016ko salmenten datu zehatzak aurkezten dituen; izan ere, bertan ikus daiteke **azken urteetan beheranzko joera nagusitu dela**.

Txostenaren azterketa

- **Polimixinak:**
 - **Ia % 40ko beherakada** egon zen polimixinen salmentan.
 - Multzo honetan sartzen da **kolistina**, beste antibiotiko batzuekiko erresistenteak diren infekzio bakterianoak dituzten pazienteetan azken tratamendu gisa erabiltzen dena.
- **Zefalosporinak:**
 - Hirugarren eta laugarren belaunaldiko zefalosporinen salmentek **% 15,4 egin zuten behera**.
- **Kinolonak:**
 - Kinolonen salmentek **% 13,6 egin zuten behera**.

SVACen txostenak agerian uzten du, halaber, **Europako egoera ez dela homogenea**; izan ere, datuak eman zituzten 25 herrialdetatik 16k % 5 edo gehiagoko beherakada izan zuten salmentetan, eta sei herrialdek **% 5 baino gehiagoko gorakada erregistratu zuten**.

Zer da ESVAC?

Albaitaritzako Mikrobioen Aurkako Medikamentuen Kontsumoa Zaintzeko Europako Proiektua da, eta Europar Batasun (EB) osoan mikrobioen aurkako medikamentuak animalietan nola erabiltzen diren aztertzea du xede. Hain zuzen, EBko eta Europako Esparru Ekonomikoko (EEE), gehi Suitza, 30 herrialdetako salmentei eta preskripzioei buruzko datuak ematen ditu.

- [ESVAC](#)

EMAk 2010eko apirilean ekin zion proiektu honi, Europako Batzordeak egindako eskaera baten harira. Batzordeak eskatu zion, hain zuzen, EBn eta Europako Esparru Ekonomikoan (EEE) **animalietan erabiltzen diren mikrobioen aurkako agentei buruzko datuak biltzeko ikuspegi harmonizatu bat garatzeko.**

ESVAC proiektuko parte-hartzea nabarmen hasi da; hasieran bederatzi herrialde ziren, eta gaur egun 30.

Argitaratuta jarduera txikietarako osasun- araudia egokitzen dituen Aginduak 18/01/29

Eusko Jaurlaritzako **Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegitureteko eta Osasun** Sailek, EHAAn argitaratu berri dituzte Euskadiko ustiategi txikietara egokituriko betekizun higieniko eta sanitarioak ofizialki ezartzen dituzten aginduak; zehazki, **arrautzak** eta **esnekiak** ekoizten eta merkaturatzen dituzten ustiategiei dagozkienak:

- Arrautzak: [AGINDUA, 2018ko urtarrilaren 12koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena eta Osasuneko sailburuarena](#), A kategoriako arrautza ez industrialetarako baldintza higienikoak eta sanitarioak egokitzeko arau tekniko zehatzak onartzen dituena.
- Esnekiak: [AGINDUA, 2018ko urtarrilaren 12koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena eta Osasuneko sailburuarena](#), esneki eta izozkietarako baldintza higienikoak eta sanitarioak egokitzeko arau tekniko zehatzak onartzen dituena.

Orain, **esne-bolumen eta arrautza kopuru txikia** eraldatzen duten Euskadiko ustiategiei euren errealitatera egokitutako eskakizunak bete ahal izango dituzte:

Esnekiak

- **Zein produktu?** Esne pasteurizatua, jogurtak, mamiak, kefirra, gazta freskoak eta

erdionduak, gurinak, esne-gainak, gaztanbera, gutxienez 60 eguneko ontze-aldia duten eta esne gordinarekin eginda dauden gaztak eta esne-izozkiak.

Zenbateko bolumena? Gehienez ere:

- 100.000 litro behi-esne eraldatu urtean
- 30.000 litro ardi-esne
- 40.000 litro ahuntz-esne eraldatu urtean

[Liburuxka](#)

Arrautzetan

- **Zein produktu?** Oilo erruleen A kategoriako arrautzak, ustiategian bertan ekoitziak.

Zenbateko bolumena?

- 350 eta 1.000 oilo errule bitartean dutenak.

[Liburuxka](#)

Sektoreko agenteek eta Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailak, Osasun Publikoko Sailak eta Foru-aldundiek elkarlanean jardun dute aukera berri honi bide emateko, **ELIKA**ren aholkularitzarekin eta koordinazioarekin.

Arau hauek, ondorengo Dekretu honen menpean garatu dira: [76/2016 DEKRETUA](#), maiatzaren 17koa, Euskadiko nekazaritzako elikagaien ekoizpeneko hainbat arlotan betekizun higieniko eta sanitarioak egokitzeko baldintzak ezartzeko dena.

Landa-hegaztien biosegurtasun-fitxak **17/12/27**

Landa Hegaztien Europako Elkartek (**ERPA**) **biosegurtasun-fitxa** batzuk egin ditu Europako landa-hegaztien hazleentzat:

- [1. fitxa](#) - Ekoizpen Unitateen kudeaketa eta babesak
- [2. fitxa](#) - Sarbideen kontrola eta "Osasun-hutsa"

Fitxa ulerterrazak dira eta hegaztien ustiategi batean **errespetatu beharreko oinarrizko printzipioak** gogorarazten dituzte:

- **Hazkuntza-eremuak babestea** eta esku-hartzaile guztiak kudeatzea.
- **Ekoizpen-unitateak independenteki** kudeatzea.
- **Palmipedoak eta galinazeoak bereiztea**.
- **Osasun-sarbidea** erabiltzea.
- **Elikagaia, ura eta hegaztiak babestea** hegazti basatiek hegazti-gripeak izanez gero.

Hegaztiak hazten dituzten ustiategi guztiek biosegurtasuneko **neurri zorrotzak aplikatu behar dituzte osasun-mehatxuetatik babesteko, hala nola hegazti-gripetik**. Testuinguru horretan, ERPAk lan hori egin du 2017an.

Hasteko, estatu kideek biosegurtasunaren arloan zituzten araudiak alderatu ditu eta gero, biosegurtasuneko **neurri homogeneousak zehaztu ditu Europako hegazti-hazle guztientzat**.

Fitxa horiek **lau hizkuntzatan eskura daitezke: ingelesa, frantsesa, gaztelania eta italiera** ([ERParen web orria](#)).

Kontrol ofizialei buruzko europar araudia argitaratu dute 17/04/19

Apirilaren 7an **argitaratu dute DOUE L 94n Europako [Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017/625 Araudia \(EB\)](#), 2017ko martxoaren 15ekoa**, elikagaien eta pentsuen legedia eta animalien osasunari eta ongizateari, landareen osasunari eta produktu fitosanitarioei buruzko arauak aplikatzen direla bermatzeko egiten diren kontrolei eta jarduera ofizialei buruzkoa. Horren bidez, hainbat araudi eta zuzentarau aldaratzen dira.

Halaber, araudi berri horrek indargabetu egingo ditu 882/2004 eta 854/2004 araudiak (EE), 2019ko abenduaren 14tik aurrera.

Aurreko albisteetan aurreratu dugun bezala, honako hauek dira, besteak beste, araudi honetako berrikuntzak:

- Hedatu egin da aurreko araudiaren aplikazio-eremua, estaldura handiagoa emateko **Landareen Osasunari, animalien azpiproduktuei** buruzko araei eta **iruzurraren** aurreikuspenari.
- Arau zehatzagoak ezarriko dira dagoeneko estalita dauden zenbait arlotan, besteak beste, **Animalien Osasunaren eta Ongizatearen** arloan.
- Kontrolaren betekizunak egokitu ahal izango dira **sektore bakoitzaren aplikazio-behar espezifiko**en arabera.

[Araudi berriaren edukiari buruzko informazio gehiago](#) - ELikaren berria 2017/03/31